1965ean «Huntaz eta hartaz» argitaratzean, aurrerakada nabarmena eman zion Txillardegik euskal saiakerari. Oraindik ere, 42 urteren ostean, ez dago bera geldirik egoteko. Hirukia osatu berri du «Horretaz» liburua plazaratzearekin. Gai ezberdinetako zazpi saio labur eskaini ditu.

# Txillardegik «Horretaz» saiakera liburuan bildu ditu bere gogoetak

Izaro AULESTIARTE | DONOSTIA

Euskal literaturaren, euskal kulturaren eta euskal gizartearen eragile handienetako bat da Jose Luis Alvarez Enparantza, Txillardegi, eta Xabier Mendiguren editoreak gogorarazi bezala, donostiarra «ez da konformatzen historia izatearekin, lanean ari baita» egun oraindik ere. Alegia, labetik atera berri du Elkarrek bere "Horretaz" liburua, zazpi saiakera labur biltzen dituena.

Izenburua entzuteak bati baino gehiagori ekarriko dio burura "Huntaz eta hartaz" (1965) liburua, Txillardegiren lehenengo saiakera. Hainbat gai ardatz hartuta, berebiziko garrantzia lortu zuen ekarpen hark. Izan ere, bazegoen, nolabait, gizarte moderno batek dituen beharretarako euskarak ez zuela balio zioen uste halako bat, eta liburu harekin euskal saiakerari bultzada nabarmena eman zion idazleak eta, era berean, euskara gai orotako tresna «malgu eta adierazkorra» izan zitekeela erakutsi.

Hala, 42 urteren buruan argitaratutako "Horretaz"-ekin hirukia osatu du Txillardegik.

### Bere kezken erakusgarri

«Zazpi saiakera labur dira –dio autoreak–, eta zer ez diren esango dut nik: ez dira gai politikoak ikutzen, ez da saiakera politikoa. Baina hori ere ez da guztiz egia, esate baterako, Sartreri buruzko saiakera bat dagoelako, eta hari buruz politikarik gabe hitz egitea ez delako posible. Gauza bera gertatzen da Ameriketako genozidioarekin ere. Zentzu horretan, beraz, politika ikutzen da, baina ez da hori helburua»

Hein horretan, gai anitzen gaineko kezka eta gogoetak bildu ditu Txillardegik. Jean Paul Sartre ez ezik, Rosalía de Castro ere -litekeenez, lehen poeta existentzialista-, mintzagai du «nire bigarren aberria den Galiziari buruz hitz egiteko aukera eman didana». Gainera, Ameriketako indioen genozidioa, giza eboluzioa, eta erlijioaren eta antropozentrismoaren kritika landu ditu entsegu banatan. Astronomiari buruz ere, bi lan daude.

## Fitxa

**Izenburua:** "Horretaz. Zazpi saiakera labur".
**Egilea:** Jose Luis Alvarez Enparantza, Txillardegi.
**Argitaletxea:** Elkar.
**Bilduma:** Eztabaida 12.
**Salneurria:** 18.50 euro.
**Orrialde kopurua:** 224.
**Kaleratze data:** 2007ko azaroa.

## ASTRONOMIA

**Astronomiari buruz liburuan dauden bi testuen aipamena egin du, bereziki, egileak. «Inondik ere ez naiz benetako astronomoa, horretan interesatua, baizik. Unibertsoan dugun lekua ulertzeko oso garrantzitsua da».**



Donostiako Elkar Megadendan aurkeztu zuen bere liburua. Maddi SOROA | ARGAZKI PRESS

# Aranburu asegura que Praileaitz está «bien protegida» y las explosiones de Zeleta se dan «lo más alejadas posible»

GARA | DONOSTIA

La diputada de Cultura de Gipuzkoa, María Jesús Aranburu, afirmó ayer que el ente foral está controlando que las explosiones de la cantera de Sasiola próxima a la cueva de Praileaitz en Deba sean «lo más alejadas posible» de ésta, por lo que sus pinturas y la cavidad «están bien protegidas y controladas». También indicó ante la prensa que si aparecieran nuevas cavidades de «interés arqueológico o cualquier otro elemento con relación directa» con la cueva, la Diputación dará los «pasos pertinentes para la modificación del Decreto y la protección de la zona que así lo requiera».

Aranburu aseguró que continúan con las «prospecciones» en el perímetro exterior de la cantera de la zona de Sasiola, donde «no se ha encontrado nada», y en la que mira hacia Astigarribia, en la que sí se ha «hallado una cavidad», en la cual se están «realizando catas para ver si tiene o no yacimiento arqueológico», y «dos caleras», es decir hornos de cal. En caso de que se encontrara éste explicó que habría que darle «protección como zona de presunción arqueológica», con lo que eso supone de intervenciones posteriores.

Asimismo, la diputada explicó que para recopilar datos «suficientes» para determinar si el Decreto de protección del área de la cueva debe ser modificado o «cuál ha de ser el plan de vigilancia» se están aplicando «sistemas como el geo-rádar».

### «Otras galerías»

Según éste, aunque «no parece que haya prolongación de la cueva hasta ahora conocida, si hay otras galerías que se han detectado pero aún no se sabe con exactitud dónde están ni qué tamaño tienen». En este sentido, afirmó que pueden ser cavidades sin valor arqueológico o que sí lo tengan.

Por otro lado, recordó que según el decreto foral, en las zonas «más restringidas» –que son «la 2, 3 y 4»– hay que «hacer estudios para la recuperación del paisaje» para lo cual el ente foral está contactando, en colaboración con la empresa Zeleta, con las personas que tengan «mayor reconocimiento en este área de recuperación».

Con los resultados de todos estos estudios y las personas contratadas para la recuperación del paisaje la Diputación deberá hacer un «trabajo de colaboración» con Zeleta y la Sociedad de Ciencias Aranzadi.

## Bisatu arazoak medio, Georgiako bi idazle ez dira Durangoko Azokan egongo

GARA | DURANGO

Gerediaga elkarteak, Euskal Idazleen Elkarteak eta Ertoba georgiarren euskal taldeak gonbidatuta, Durangoko 42. Euskal Liburu eta Disko Azokara etortzekoak ziren Nugzar Tsikaluri eta Tamar Ebralidze idazle georgiarrak, baina etorri ahal izateko Georgian lortu beharreko bisatua eskuratzeko ipini dizkieten trabak handiak izan dira, eta ezin izango dira Durangora etorri.

Horien ordez, David Bakradze idazle georgiarra etorriko da –orain Italian dago– Bakradze Kultura ministroa izan zen eta Georgiako ereserkiaren letra jartzaileetako bat. Hala, azokako arduradunek adierazi dutenez, Bakradze eta David Turashvili izango dira Durangon.

Bestalde, Gerediaga Elkarteak eta Durangaldeko Musika Taldeek, euskal kantak bertsionatuz, Euskal Greatest Hits Gaua kontzertu-maratoia egingo dute datorren abenduaren 7an.

## Primera Muestra de cine documental musical en Donostia

GARA | DONOSTIA

El festival "Dock of the Bay" presenta tres días de cine documental musical en Donostia, desde el viernes, 30 de noviembre, al domingo, 2 de diciembre. Sin ningún apoyo institucional, el festival se presenta por primera vez en Donostia, tras pasear por ciudades estatales como Barcelona y Madrid o por países como Chile.

Las proyecciones, tres diarias, tendrán lugar en el Principal Antzokia y costarán 5,5 euros. El bono para las nueve proyecciones costará 45 euros. Entre las películas, se exhiben algunas dedicadas a bandas legendarias como The Who, The Beatles, The Police, Pixies o Love.

Mañana viernes, fiesta inaugural en el Be Bop y el sábado, fiesta "Dock of the Bay" en Bukowski, ambas a las 00.00 h.